

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2026ko ekainaren 18an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

EUSKARA ARLOKO ZUZENENKO DIRU LAGUNTZAK BIDERATZEA

Euskara arloko 2026ko udal aurrekontuan jasoa dago hainbat ekimen diruz laguntzea euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin.

Besteak beste, hauek dira aurrekontuan jasota ditugun ekimenak eta erakunde sustatzaileak:

Gizarte Erakundeen Kontseilua	2.000,00 €
Hizkuntza Eskubideen Behatokia	1.800,00 €
Komunikazio Biziagoa-Argia	1.000,00 €
UEU – Udako Euskal Unibertsitatea	700,00 €
Bertsularien lagunak	1.000,00 €
EHE-Euskal Herrian Euskaraz	1.000,00 €

Bertaratutakoak ados azaldu dira emandako informazioarekin.

Kontuan hartu da Herriarrentzako zerbitzuen batzordeak 2026ko ekainaren 11an aho batez emandako irizpena

Horiek horrela, Hernaniko Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez erabaki du:

Zuzeneko diru laguntzak onartzea.

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorritik

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi errekurtsuaren aurretik, berraztertze errekurtsua aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsuak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa
Hernaniko bitarteko Udal Idazkaria
Hernanin 2026ko ekainaren 25an

Jakinarazpen hau elektronikoki sinaturik dago: egiazkotasuna eta osotasuna egiazta dezakezu azpiko QR kodea edo goitza elektronikokoaren bitartez

